

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Proiektu bati hasiera emateko lehenik eta behin diru kantitate bat eta lagungarriak izan daitezken beste hainbat baliabide behar dira. Eta horregatik jasoko ditugun diru-laguntzez gain, eta geuk ipini beharko dugun diruaz gain, geure gaitasunak ere agerian utzi beharko ditugu.

Proiektu honi hasiera bat emateko, denok diru kantitate bat jarri beharko genuke produktuak eta lokala lortzeko eta ondoren ordaintzeko. Hala ere, CaixaBank banketxera hurbilduko gara gure egoeraren berri emanez mailegu bat eskatzera. Ondoren Eusko Jaurlaritza erakundeengana joango ginateke, berez, gu negozio berri bat sortzeaz gaude eta diru laguntza bat egokitu beharko litzaiguke. Honek gure proiektua aurrera eramaten lagunduko liguken. Hasieran diruak garrantzi handia izango du eta ardura handiz erabili beharko dugu.



Gure proiektuak arrakasta izateko, ezinbestekoak izango dira gure abileziak eta beharrezkoak izango ditugun lan-tresna fisikoak eta ez fisikoak zehaztea eta erabiltzea. Baliabide fisikoa ukigarria denari deritzok, baliabide ez fisikoari aldiz, ukigarria ez denari.

Baliabide fisikoen artean lokala sartzen da. Honako hau beste guztiak bezala beharrezkoa dugu gure helburua betetzeko, beharrezkoena dela ez esate arren. Izan ere gimnasio bat egin nahi dugu, eta hau montatzeko gune espezifikorik gabe gure proiektua aurrera ateratzea ezinezkoa litzaiguke. Lokala lehenago aipatu bezala beste enpresa batekin hitzartutako aliantza baten bidez lortuko dugu.

Lokala, logikoa den bezala pentsatzen dugu ongi hornitu beharra dagoela. Diru kontuez arduratuko den kidea eta sarreran egongo den kidea berdina izango da, eta lanerako material egokia beharko du; bertan, ordenagailua, mugikor finko bat eta mugikor zenbaki bat, inprimagailua, maila eta ahulkia... Hauek funtsezkoak dira langile honek lan-baldintza egokiak eduki ditzan. Material hauek guztiak ez ditugu guk erosiko, hainbat tresna guk aportatuko ditugu gure etxetik: Mikelek bere etxeko ordenagailua ekarriko du lokalera, Unaxek telefono finkoa, Asierrek etxean duen inprimagailu bat, eta Oierrek berriz, etxean soberan duen mahai bat eta hainbat aulki.

Beste aldetik berriz, baliabide fisikoen artean, gimnasioa hornitzeko behar diren materialak guztiz funtsezkoak dira, gure zerbitzua ez dagoelako hauek gabe eskaintzerik. Hauek dira eskuratuko ditugun materialak: gimnasioan bertan egongo diren makinak, takilak gure bezeroek beraien gauzak bertan gorde ditzaten eta erosoagoa izan dadin gure gimnasia etortzea eta baita aldagelak ere, lehenago aipatutako bezeroak bertan aldatu edo dutxa daitezen entrenamentua bukatu eta gero.

Baliabide guzti hauez gain, beste zenbait baliabide garrantzi handikoak egingo zaizkigu. Gure kontaktuak horietako bat dira. Dazukagun kontaktuek gure negozioari

lagunduko digute. Funtsezko elkartean atalean aipatu dugun bezala, guk izango dugun kontaktuetako bat "Salto" izango da, eta beraien lesionatuak guregana etortzeko aukera izango dute.

Taldekideok ditugun abilezia intelektualak identifikatzea eta gure onurarako erabiltzea ezinbesteko laguntza bat izango da:

Unax eta Mikel Crossfit kirolean oso onak dira, hainbat txapelketetan parte hartu dute biek eta gaitasun altuak dituzte. Honez gain, ikasketa asko dituzte kirolaren inguruan orokorrean eta baita espezifikoki Crossfitaren inguruan ere. Gainera kirola egiten txiki-txikitan hasi ziren eta asko gustatzen zaienez bizitza guztia kirola egiten pasatu dute, kirol asko egin dute beraien bizitzan zehar. Bi taldekide hauek makinekiko eta jarduera askorekiko jakinduria handia dute. Makina batean egin beharreko ariketa nola den ez badakigu, "Rocfit" enpresarekin kontaktuan jarriko dira, nahiz eta makina ia guztiek nola funtzionatzen duten badakiten, urteen poderioz ikasi dutelako. Ikaragarri gustatzen zaie makinaren edo beste edozein tresnaren barneko funtzionamendua ulertzea eta ahal bada arazoak konpontzea.

Oier berriz, diru kontuetan eta erlazionatzen duten gaietan aditua da. Horrez gain, izan dituen lanetan ikusi dugun bezala, pazientzia handiko gizona da eta honako hau denok ez dugun gauza bat da. Aurretik izan duen lanetako bat Aldiri kiroldegiko sarreran egoten denarena da. Bertan pasatzen ziren gazte orori behin eta berriz gogorarazi beharra izaten zuen desinfektantea ematea ezinbestekoa zela, eta Oierrek ez zuen amore ematen eta denei era atsegin batean azaltzen zien. Honez gain Urretxuko pistinan sarrerak saltzen ere aritu da. Lanpostu horretan, sarrerak saltzen dituen ere galdutako objektuak jabeak aurkitzeaz arduratzen da. Aipatu dugun bezala, izan dituen lan gehienak jendearekin aurrez-aurre jokatzekoak izan dira, beraz, bezeroen zalantzak egoki erantzuteko gaitasuna lortu duela esan genezake. Hau da, erantzun behar duena ondo adierazten eta informazio egokia ematen ikasi du esperientziari esker.

Asierrek publizitatea egiten gaitasuna du eta baita jendearekin erlazionatzeko ere. Horrez gain jendaurrean hitz egitean esan beharrekoa ondo prestatzeko joera du. Kide honek publizitateari buruzko hainbat ikasketa egin ditu eta hauei esker eskuratu ditu kompetentzia hauek.

Nabarmendu nahi dugu norberak bere gaitasunak proiektuan lantzen eta erabiltzen baditu, dena errazagoa egingo zaigula. Izan ere denok atsegin dugun eta onak garen gauza batean arituko gara lanean.